

PHILIPPE ARANART kalonjea

(1901-IX-9 - 1981-VIII-13)

Baigorriin sortu zen Philippe Aranart, mende horen hastapenean. Burasoak ziberotarrak zituen. Aita jandarme aintzindari. Apezteko eskolak Beloken egin zituen eta gero Baionan. 1927 an apezturik Tolosara bidali zuten letretako lizentziatura pres-tatzera, baina, bizi guzia iraunen dion hezurretako gaitza lotu zitzaion eta herrira itzuli zenean Uztaritzeko apezgaitegira izendatu zuten. Hor zen hasi euskal lanetan Piarres Lafitte adiskide eta irakasle lagunarekin. *Euskalduna* kazetan eta gero *Aintzi-nan* argitaratu artikulu bakan batzuetaz bestalde, bururatu zuten oroz gainerik, aita Lhande-k, *F* letra arte eremana zuen bere hiztegia, *Vocabulaire français-basque* argi-taratu zuten gero lafitte-k eta biek eta ere Julien Heguy zenaren *Maiatza*.

1936an, Baionako lizeora izendatu zuten omonier, Aranart apeza eta geroztik, bere osagarriaren gora beheren arabera, maiz lekuz eta karguz aldatu beharko da, sekula bere omere ona galdu gabe. Horra nola Baionatik lekora, erretor egon ondoan Hendaian (1948); Hazparden (1952); Maulen (1955); apez lagun jarriko da, 1958 ez goroz Bidarten, Kanbon, Miarritzen eta azkenik Maulen. Hor itzali zaigu gure adiski-dea uztailaren 13an.

P. Xarritton